



Azpeitiko Udala

AZPEITIKO UDALA	
2022 URK. OCT. 03	
IRTEERA SALIDA	Zkia. 3563 N.º

AZPEITIA HIRI ZINTZO ETA LEIALEKO IDAZKARITZA
BIKOIZTUA JASO DUT.

Azpeitia, 20...eko...

unak 14.

Erabaki honekin ados ez bazaude, errekurtsoak aurkezteko bi bide dituzu:

1. Administrazioarekiko **AUZI ERREKURTSOA** jarri ahal izango duzu, Donostiako Administrazioarekiko-auzien Epaitegian. Horretarako, **BI HILABETEKO** epea daukazu, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

2. Aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa jarri aurretik, aukerako **ERABAKIA BERRAZTERTZEKO-ERREKURTSOA** aurkez dezakezu udaletxean bertan. Horretarako, **HILABETEKO** epea duzu jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Hori guztia, zure/zuen eskubideen babes hoberako jartzea egoki iritzitako beste edozein ekintza edo errekurtsu jartzearen kalterik gabe.

Lege oinarria: Administrazioarekiko Auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998ko 8. artikuluan ezarritakoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 124. artikuluaekin bat.

Azpiko datan agertzen den egunean, Udal honen alkate-udalburuak Ebazpen bat eman du, hitzez hitz jasoa honela dioena:

OILAGORRA EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEAK ARRANTZA SUSTATZEKO BIDERATZEN DUEN JARDUERARENGATIK LAGUNTZA ZUZENA. (22-12D / 2022DZKI0004)

Azpeitiko Udalak urteak daramatza Oilagorra Ehiza eta Arrantza Elkartearekin lankidetzan, Urola ibaia birpopulatu eta biziberritzeko eta arrantza kirol- eta aisialdi-aukera gisa sustatzeko helburuarekin.

Udalak, nola ez, interes orokortzat jotzen du ibaia birpopulatu eta biziberritzeko helburuarekin Elkartek horrek urtez urte ematen duen kudeaketa lana, herri mailan arrantza kirola sustatzea duelako helburu, batetik, eta baita ibaian arrainak zaintzea ere. Elkartek Udalak alor honetan dituen eskumenak osatzen ditu, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan ibai arrantzaren aprobetxamenduri buruzko araudia betetzen du.

Laguntza hau bat dator Udalak 2020ko maiatzaren 5ean onartu zuen Azpeitiko Udalaren 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoarekin (GAOn 2020/05/28an argitaratua) hain zuzen ere, bere helburu estrategikoa VIII. eranskinean dago jasota: Jarduera fisikoa eta kirola egiten laguntzea, aukerak sortuz, eta aldi berean Azpeitiko herritarren artean sormenezko eta ardurazko aisia eta denbora libreko jarduerak sustatzea ere. Kirolari gazteak kirol diziplinaren praktikan garatu ahal izateko eta kirol jardueretan eta lehiaketetan parte hartzeko behar den prestakuntza sustatzea. Azken batean, helburu nagusia kirol jarduera eta modalitate ezberdinak sustatzea da.

Udalak 2021eko azaroaren 1ean dirulaguntzak emateko onartu zuen udal-agintaraua kontuan izanik, laguntza hau zuzeneko dirulaguntza izenduna da, Udalaren 2022. ekitaldiko aurrekontuak espresuki jasota baitu 3.000€-ko dirulaguntzaren kopurua honako partidan: 1.0500.481.341.00.02.2022 Transferentzia arruntak kirol batzordea (justifikatutako diru-kopurua **2.860€**)

Oilagorra Elkartearen izenean Iñaki Azkue Odriozolak 2022ko

martxoaren 15ean idatzi bat aurkeztu zuen eta 2022. ekitaldian onartutako laguntza jasotzeko beharrezkoak diren fakturak eta ordainagiriak aurkeztu ditu Udal honetan. Halaber, ziurtatu du Ibaia birpopulatzeko erabili den amuarrain espeziea bat datorrela GFAko Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuak emandako irizpideekin.

Udal Kirol Batzordeak 2022ko uztailaren 27an egindako ohiko bilkuran aldeko irizpena eman dio aurtengo ekitaldirako egitasmoari.

Organo-kudeatzailea den Kirol Sailak proposatuta dagokion **hitzarmena** osatu da Oilagorra Ehiza eta Arrantza Elkarteari 2022. ekitaldirako laguntzaren baldintzak eta konpromisoak zehazteko (**Alkatetzak 2022ko uztailaren 28an onartua**).

Dirulaguntzaren onuraduna izateko 38/2003 azaroaren 17ko dirulaguntzen legeak eta 2021eko azaroaren 1ean onartutako dirulaguntzen udal agintarauak ezarritako baldintzak osatu ditu Oilagorra Elkartek. Hori horrela izanik Udalak dagokion ordainketa egingo du.


Azpeitiko Udalaren aurrekontuak badu bere aurrekontuan dirulaguntza hori jasota, eta eskumenari dagokionean Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.artikuluaren dioenaren arabera, **NAGORE ALKORTA ELORZA**, Azpeitiko Udalaren alkate-udalburua, **ERABAKI DUT**:

Oilagorra Ehiza eta Arrantza Elkarteari 2.860€-ko laguntza-ekarpena onartzea eta ordaintzea, elkarte honek 2022. ekitaldian Urola ibaia birpopulatu eta biziberritzeko helburuarekin eta eta arrantza kirol eta aisialdi-aukera gisa sustatzeko egiten duen lanarengatik

Dirulaguntza hau aurrekontuaren honako partidatik ordainduko da: 1.0500.481.341.00.02.2022 Transferentzia arruntak kirol batzordea. Azpeitia, 2022ko irialaren 26a.- Alkateak.- Sinatuta: Nagore Alkorta Elorza.- Zigilatua.

Eta horren berri ematen dizut zuri, jakinaren gainean izan zaitezen.

Azpeitia, 2022ko irailaren 26a
IDAZKARIAK,



Oilagorra Elkartea-G20439121
Erdikale 18

20730 Azpeitia



Azpeitiko Udala

**AZPEITIKO UDALA ETA OILAGORRA EHIZA ETA ARRANTZA ARTEKO
HITZARMENA UROLA IBAIAN AMUARRAINEN BIRPOPULAZIOA GARATZEN
LAGUNTZEKO. (22-12D / 2022DZKI0004)**

Azpeitian, 2022ko irailaren 26an.

ELKARTU DIRA:

Alde batetik, **NAGORE ALKORTA ELORZA**, NAN 72.471.832-M duena,
Azpeitiko Udalaren Alkate-Udalburua.

Bestetik, **IÑAKI AZKUE ODRIOZOLA**, NAN 72.461.430-E duena,
OILAGORRA EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEAREN ordezkaria (IFZ: **G20439121**).

BERTARATU DIRA

Lehena, Azpeitiko Udalaren ordezkari-lanetan, Udalbatzak 2019ko ekainaren 13an
egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako baimendua.

Eta bigarrena, OILAGORRA EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEAREN
ordezkari-lanetan, 2022ko urtarrilaren 14ko batzar orokorrean izendatua.

AURREKARIAK

Oilagorra Ehiza eta Arrantza Elkarteak, Udalak onarturiko baimen baten bitartez, udal
garbitokia izandakoa erabiltzen zuen, ibaiak biziberritzeko helburuarekin arrainak hazteko.

2007. ekitaldian Azpeitiko Udalak, udalerrian dagoen alberka edo garbitoki zaharraren
eraikina sendotzea erabaki zuen turismo eraikin hori erakargarria bihurtu eta duen balioa
berreskuratu eta indartzeko.

Erabaki horren aurrean Oilagorra Ehiza eta Arrantza Elkarteak, ibaiak biziberritzeko
erabiltzen dituen arrainak udal garbitoki zaharretik kendu eta beste leku batera aldatu behar izan
zituen.

Udalak, nola ez, interes orokortzat jo zuen du ibaiak biziberritzeko helburuarekin arrainak
hazteko Elkate horrek ematen zuen kudeaketa lana. Batetik, herri mailan arrantza kirola sustatzea
duelako helburu, baita ibaian arrainak zaintzea ere. Elkarteak Udalak alor honetan dituen
eskumenak osatzen ditu. Hori dela eta, Udalak eta Oilagorra Ehiza eta Arrantza Elkarteak 2007ko
maiatzaren 1ean lankidetzat hitzarmena sinatu zuten elkarrekin.



Azpeitiko Udala

Hitzarmen horretan jasotako klausulak, aldatu egin dira, izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan arrantza kontinentalaren aprobetxamenduari buruzko araudiaren baitan, hazitegietan dauden amuarrainak askatu daitezke, soilik, eta beraz, Ollagorrak ezin zituen bere hazitegiko amuarrainak erabili. Horregatik, azken urteetan, GFAk onartutako hazitegietako amuarrainak erosten ditu klubak, ondoren Urola ibaian askatzeko. Askatu beharreko amuarraina-espeziea ere Foru-Aginduaren bidez arautzen da, urtero.

Udalak, nola ez, interes orokortzat jotzen du Urola ibaia birpopulatu eta biziberritzeko helburuarekin eta arrantza kirol- eta aisialdi-aukera gisa sustatzeko Elkartek horrek urtez urte ematen duen kudeaketa lana, herri mailan arrantza kirola sustatzea duelako helburu, batetik, eta baita ibaian arrainak zaintzea ere. Elkartek Udalak alor honetan dituen eskumenak osatzen ditu, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan ibai arrantzaren aprobetxa-menduri buruzko araudia betetzen du.

Laguntza hau bat dator Udalak 2020ko maiatzaren 5ean onartu zuen Azpeitiko Udalaren 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoarekin (GAOn 2020/05/28an argitaratua) hain zuzen ere, bere helburu estrategikoa VIII. eranskinean dago jasota: Jarduera fisikoa eta kirola egiten laguntzea, aukerak sortuz, eta aldi berean Azpeitiko herritarren artean sormenezko eta ardurazko aisia eta denbora libreko jarduerak sustatzea ere. Kirolari gazteak kirol diziplinaren praktikan garatu ahal izateko eta kirol jardueretan eta lehiaketetan parte hartzeko behar den prestakuntza sustatzea. Azken batean, helburu nagusia kirol jarduerak sustatzea da.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 22.2 artikuluan xedatzen du Toki Administrazioari aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahalko direla, betiere, dirulaguntza arautzen duen hitzarmenean eta dirulaguntzak arautzen dituen araudian jasotako baldintzetan.

Lege bereko 28. artikulua dirulaguntzak zuzenean emateko prozedura arautzen du, zehaztuz, hitzarmenak direla Toki Administrazioek aurreikusitako dirulaguntza izendunak bideratzeko ohiko tresnak. Hitzarmenek, legean xedatutakoa betez, aplikagarriak diren baldintzak eta konpromisoak jasoko dituzte.

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 65. artikulua arabera aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak izango dira, xedea, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna aurrekontuaren gastuen egoera-orrian berariaz zehaztuta dituztenak. Gainera, dirulaguntza horiek emateko prozedura ofizioz hasi daiteke edo eskatuta eta dirulaguntza arautzeko oinarri izaera izango duen hitzarmenarekin amaituko da.

Beraz, dirulaguntzen Lege Orokorrean eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoa betez, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzeko erabakia hartu dute, ondorengo baldintza



Azpeitiko Udala

edo xedapenen arabera:

KLAUSULAK

1. HELBURUA.

Hitzarmenaren helburua da OILAGORRA EHIZA ETA ARRANTZA elkarteari 2.860€ko laguntza izenduna ematea, 2022. ekitaldian Urola ibaia birpopulatu eta biziberritzeko eta arrantza kirol- eta aisialdi-aukera gisa sustatzeko helburuarekin egiten duen lanarengatik.

2. ARAUBIDE JURIDIKOA.

Dirulaguntza hau arautuko dute, errege dekretu honetan eta dirulaguntza emateko ebazpenean bereziki xedatutakoak ez ezik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako hura garatzen duen Erregelamenduan aurreikusitakoak ere, publizitate- eta lehia-printzipioei eragiten dienean izan ezik, bai eta, modu osagarrian, urriaren 1eko Administrazio Publikoen urriaren 1eko 39/2015 Legean (urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) aurreikusitakoa ere.

3. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA.

Dirulaguntza hau zuzenean emango da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2.a) artikuluan xedatutakoaren arabera. Dirulaguntza honen oinarri arautzaileak hitzarmen honetan zehazten dira, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 28.2 artikuluan eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 67. artikuluan xedatutakoa betez.

Udalaren Kirol Saila izango da laguntzaren organu-kudeatzailea, eta laguntzaren jarraipena egingo duena Kirol Batzordea izango da.

Dirulaguntza honen publizitatea Udalaren web orrian eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean egingo da.

4. GAUZATZE ALDIA

Diruz laguntzen diren jarduerak egiteko aldia 2022eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte luzatuko da.

5. LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA FINANTZAKETA

Dirulaguntza Udalaren 2022. ekitaldirako gastu-aurrekontuaren kontura finantzatuko da, 2.860 euroko zenbatekoarekin, 11.0500.481.341.00.02.2022 *Transferentzia*



Azpeitiko Udala

arruntak kirol batzordea aurrekontu-aplikazioaren kargura.

6. LAGUNTZA ORDAINTZEKO MODUA

Onuraduna izateko baldintzak: Laguntzaren onuraduna izango den OILAGORRA EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEAk azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan ezarritako baldintzak bete ditu dirulaguntza kobratzeko.

Ordainketa justifikazio ondoren: OILAGORRA EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEAk dirulaguntzaren zuriketa aurkeztuta du eta alkatetza dekretu bidez gauzatuko da ordainketa.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 42.2.d) artikuluan aurreikusitakoaren babesean, erakunde onuraduna bermea eratzetik salbuetsita geratuko da.

7. BESTE DIRULAGUNTZA, LAGUNTZA, DIRU-SARRERA ETA BALIABIDE BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA.

Dirulaguntza hau bateragarria da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

Erakunde onuradunak aurreko paragrafoan aipatutako baliabideak lortu dituela jakinarazi beharko du. Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta, nolanahi ere, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14.d) artikuluan ezarritakoaren arabera jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

Jarduerak, dirulaguntza honekin finantzatzeaz gain, funts propioekin edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuekin finantzatu badira, justifikazioan egiaztatu beharko da funts horien zenbatekoa, jatorria eta erabilera diruz lagundutako jardueretan, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30.4 artikuluen arabera.

Dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.

8. JUSTIFIKAZIOA

Diruz lagundutako jardueren kontura egindako gastuak 2022ko ekitaldiari dagokionez justifikatuta daude Udaleko Kirol Teknikariak egindako txostenean adierazten den moduan.

9. GASTU HAUTAGARRIAK



Azpeitiko Udala

Dirulaguntza honako kostu mota hauek finantzatzeko bakarrik erabiliko da:

A) Zuzeneko kostuak: Azpeitiko herrian Oilagorra Ehiza eta Arrantza Elkarrekin a bere gain hartuko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, urtero, ematen dituen irizpideak betetzea. Birpopulazioa egin ahal izateko, beraz, ezinbestekoa izango da, Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendutako arrainak izango direla bermatzea.

Erakunde onuradunak dirulaguntzaren xede den jarduera azpikontratatu ahal izango du, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29.2 artikuluan ezarritako mugen barruan.

10. ALDAKETAK

Dirulaguntza ematea eragin duten inguruabarrak aldatuz gero, onuradunak hasieran aurreikusita zeuden jarduerak zabaltzeko, kentzeko edo aldatzeko eskatu ahal izango du, arrazoiak azalduta.

Aldaketek ezin dute inola ere dirulaguntzaren zenbatekoa handitu.

11. ERAKUNDE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Dirulaguntzaren erakunde onuradunak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. artikuluan jasotako betebeharrek bete beharko ditu, eta, bereziki, betebehar hauek izango ditu:

A) Helburua betetzea, jarduera egitea eta dirulaguntza emateko oinarri den portaera hitzarmen honetan eta dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako moduan, baldintzetan eta epean hartzea, dagozkion justifikazioak aurkeztuz eta Kultura Sailak jarduketak behar bezala ebaluatzeko behar diren datuak emanez.

B) Organo eskudunak eskatutako gastuak justifikatzea fakturekin eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako dokumentuekin.

C) Diruz lagundutako jardueretarako funtsen aplikazioaren kontrol- eta jarraipen-jarduketak onartzea, dokumentuak egiaztatuz eta Kultura Sailak finantzaturako jardueren amaierako ebaluazioa eginez, bai eta Kontuhartzaitzak eta Kontu Auzitegiak funtsen finantza-kontrola egitea ere.

D) Dirulaguntza publikoak kudeatzeko prozedurak modernizatzen laguntzea, Udalak zehaztutako tresna informatikoak erabiliz.

E) Dirulaguntza jasotzen duten proiektuen eduki nagusia osatzen duten jarduerak



Azpeitiko Udala

kudeatzea eta zuzenean egitea.

F) Datuak babesteari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoa betetzea.

Alderdiek adierazten dute ezagutzen dituztela Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoari buruzko (3/2018) Lege Organikoari eta Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduari buruzko xedapenak, eta konpromisoa hartzen dute lege horretan aurreikusitako betekizunak betetzeko, hitzarmen hau dela-eta dauzkaten erabiltzaileen datuei dagokienez.

G) Dirulaguntzaren jatorria behar bezala identifikatzea eta jardueraren finantzaketaren izaera publikoa behar bezala zabaltzea. Horretarako, diruz lagundutako jarduera zabaltzeko erabiltzen den materialean, proiektuaren ondorio izan daitezkeen iragarkiak, kartelak eta argitalpenak txertatu beharko ditu, bai eta gauzatutako jardueren inguruko esku-hartze publikoetan ere.

H) Bere webgunean argi eta garbi adieraztea diruz lagundutako jarduerak Udalaren dirulaguntzen bidez gauzatzen direla.

12. EZ BETETZEAK ETA ITZULKETAK

Bidezkoa izango da jasotako zenbatekoak eta, hala badagokio, diruz lagundutako jarduerak sortutako diru-sarrerak eta dirulaguntzagatik sortutako interesak itzultzea, bai eta dagokion berandutze-interesa eskatzea ere, dirulaguntza ordaintzen denetik bidezkoa den egunera arte.

13. ZEHAPEN-ARAU BIDEA

Diruz lagundutako erakundeak dirulaguntzen arloan egin ditzakeen arau-hausteak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV. tituluan eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren IV. tituluan ezarritakoaren arabera mailakatu eta zehatuko dira.

Eta, hitzarmen honetan ezarritakoarekin bat datozela adierazteko, hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, jarraian agertzen direnek honelako hiru ale sinatu dituzte, jatorrizkoak, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean.



Azpeitiko Udala

Eta aurreko guztiarekin ados daudenaren seinale, bi aldeek izenpetu egiten du kontratua, bi aletan, izenburuan adierazitako leku eta egunean.



Nagore Alkorta Elorza
Azpeitiko Udala

Nagore

Iñaki Azkue Odriozola
Oilagorria Ehiza eta Arrantza Elkartearen
ordetzkaria

Iñaki